

ARANZADI ERAZTUNTZE BULEGOKO DOKUMENTUAK

ERAZTUNLE AZTERKETARI BURUZ JAKIN BEHARREKOAK

Bertsioa: 2017ko urria.

Dokumentu hau honela aipatu:

Aranzadiko Eratzuntze Bulegoa, 2017. Eratzunle azterketari buruz jakin beharrekoak, 2017ko urriko bertsioa. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia

SARRERA

Aranzadi Eratzuntze Bulegoko Eratzunle Aditu titulua lortzeko azterketak 20 galdera ditu. Azterketak egitura hau dauka:

- ✓ Espeziea, adina eta sexua identifikatzeko 16 galdera. Galdera bakoitzak puntu bat balio du.
- ✓ Muda fitxa betetzeko galdera 1. Galdera honetan gainera, espeziea, adina eta sexua ere zehaztu behar dira. 2 puntu balio ditu.
- ✓ 4 galdera teoriko: eratzunlegaiak baimena administratiboekin, proiektuen antolaketarekin, eratzunketa datuak bidaltzeko moduarekin, etab.-ekin erlazionatutako galderei erantzun behar die. Galdera bakoitzak 0,5 puntu balio ditu.

Orokorrean, espezieen identifikazioari buruzko galderek (muda fitxa barne), talde taxonomiko hauek barneratuko dituzte:

- ✓ 11 paseriforme.
- ✓ 2 harrapari.
- ✓ Zangaluze, itsas-txori, ardeido, ahate etab.-en taldeko 2.
- ✓ Aurretik aipatutako talde taxonomikoetan barneratzen ez diren veste 2 espezie.

Azterketa gainditzeko, eratzunlegaiak 20tik gutxienez 15 galdera ongi erantzun beharko ditu. Azterketara aurkeztu ahal izateko, 60 jardunalditan a parte hartu dela eta gutxienez 60 espezie desberdinetako 1500 ale (gehenez 100 ale espezie bakoitzeko) maneiatu direla ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Hona hemen azterketan ager litezkeen galderen adibide batzuk.

IDENTIFIKAZIOA

1. Argazkian agertzen den hegaztiaren espeziea, adina eta sexua zein diren adierazi. Ale honen harrapaketa datuak hauek dira:

- Data: urtarrilak 10.
- Lekua: Arnedo (Errioxa).
- Hego-luzera: 415 mm.
- Pisua: 1150 g.
- Inkubazio-plaka: 0.





Arrazoitutako erantzuna:

Buteo buteo. Tamaina ertaineko eta kolore arreko harraparia, nahastezina. Iris iluna eta hanka horiak. Buztaneko barra-patroian Pernis apivorus-en desberdina da.

Adina (EURING): 7. Bi luma belaunaldi oso argi bereizten dira; zaharrenak (RR2-5; P7 a 10, S6 y TT) gazte diseinua dauka: puntako barra iluna helduetan baino estuagoa da. Zapelatzen beren lehen muda osoa beren bizitzako bigarren udaran egiten dute (EURING 5) baina muda prozesu honek 2-3 urte irauten ditu. Urtarrilean harrapatu zenez, bi luma belaunaldi ikusten ditugunez eta hauetako bat gazte lumajeak osatzen duenez (ez oraindik du muda osoaren lehen zikloa osatu), 7 adina duela jartzen dugu.

Sexua: emea (neurri biometrikoetan oinarrituta).

2. Argazkian agertzen den hegaztiaren espeziea, adina eta sexua zein diren adierazi. Erantzuna labur arrazoitu. Ale honen harrapaketa datuak hauek dira:

- Data: irailak 10.
- Lekua: Mallorca.
- Hegos: 82 mm.
- Pisua: 14,2 g.
- Inkubazio-plaka: 0.





Arrazoitutako erantzuna:

Phoenicurus phoenicurus. Espeziea hau beste batzuekin nahastea oso zaila da, batez ere argazkian bezala alea arra denetan.

Adina (EURING): 4. Luma estalgarri handietan, luma tertziarioetan edota sekundario eta tertziarioen artean ez da muda mugarik behatzen eta beraz ezin du 3 adina izan. Muda osoa burutu duen alea da.

Sexua: arra (kolorazioan oinarrituta).

3. Argazkian agertzen den hegaztiaren espeziea, adina eta sexua zein diren adierazi. Muda-fitxa ere osatu. Erantzuna labur arrazoitu. Ale honen harrapaketa datuak hauek dira:

- Data: uztailak 10.
- Lekua: Gorbea, Bizkaia.
- Hegos: 89 mm.
- Pisua: 21,6 g.
- Inkubazio-plaka: 0.





ANILLA		CONTROL sí <input type="checkbox"/> no <input checked="" type="checkbox"/>		ESPECIE		EDAD	SEXO	MUDA ACTIVA sí <input checked="" type="checkbox"/> no <input type="checkbox"/>		TPO DE MUDA VERANO <input checked="" type="checkbox"/>										
LUGAR Y MUNICIPIO						PROV.		TOMA DE DATOS												
COORDENADAS			FECHA		ANILLADOR		ESPECIAL sí <input type="checkbox"/> no <input checked="" type="checkbox"/>													
ALA		3ª PRIMARIA	PESO	GRASA	MÚSCULO	HORA	OSIFICACIÓN sí <input type="checkbox"/> no <input checked="" type="checkbox"/>													
TERCIARIAS Y SECUNDARIAS						PRIMARIAS														
I	D	9	8	7	6	5	4	3	2	1	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
COBERTERAS MAYORES										COB.		COBERTERAS PRIMARIAS								
I	D	10	9	8	7	6	5	4	3	2	1	1	2	3	4	5	6	7	8	9
MITAD IZQDA. DE LA COLA						MITAD DCHA. DE LA COLA						PLUMAS DEL CUERPO								
6	5	4	3	2	1	1	2	3	4	5	6	CAB	PI	PS	CPe	CMe	ESC	CSC	CIC	
NOTAS												%	CREC.	%	NU.	%	?	...		
FICHA ADICIONAL <input type="checkbox"/>												I	D							

Arrazoitutako erantzuna:

Fringilla coelebs. Espezie hau ezin liteke beste edozeinekin nahasi.

Adina (EURING): 5. Aleak muda osoa hasi berri du (P1-3 berriak, P4 ez dago, P5-10 zaharrak). Muda hasi berri duenaz ez da ongi ikusten zenbat luma estalgarri aldatuko dituen. Luma estalgarrietako 2. Eta 3, lumen artean muda-muga dagoela ikusten da eta beraz, aurretik muda partzial bat egon dela ondoriozta daiteke. Muda partzial honek halabeharrez, alea jaio zeneko urtean (adina: 3) egindakoa izan behar du. Beraz, txonta irailean harrapatu denez eta muda osoa egiten ari denez, 5 adina izan behar du. Gainera erdiko errektrijeetan higadura handia behatzen da eta ezaugarri hau ere, 5 adina duten aleetan ohikoa da.

Sexua: arra (kolorazioan oinarrituta).

4. Zu bizi zaren probintzian kaio hankahoriak PVCko urrunerako irakurketarako eratzunak erabilia markatzeko proiektu bat habian jartzeko emango zenituzkeen urratsak labur azaldu.

Erantzun arrazoitua:

Lehenik eta behin, lan egin nahi dudan kolonietan jada beste talde batzuk lanean ez daudela ziurtatuko nuke. Bertan proiektu bat martxan egonez gero, laguntzeko modua zehazteko beraiekin hitz egingo nuke. Inor lanean ez badago, crbirding-eko kaioen koordinatzaileari kode bat egokitzeko eskatuko nioke. Kode hau erabilia PVC eratzunak fabrikatzen dituen hornitzaile bati eskaria egingo nioke. Prozesu honek guztiak irauten duen bitartean, Eratzuntze Bulegoari pausu guztien beri emango nioke. Aleek PVCzko eratzunarekin batera metalikoa ere eraman behar dutenez, honekin batera, Eratzuntze Bulegoa bitartekari moduan izanda, behar den baimena administratiboa eskatuko nuke (proiektua bidaliz).

Erantzun arrazoitua (baliokidea):

Proiektua bidalita eta Eratzuntze Bulegoa bitartekari izanda, baimena administratiboa eskatuko nuke (aleek PVCzko eratzunaz gain metalikoa ere eraman behar dutelako). Gainera, Eratzuntze Bulegoari urruneko irakurketarako kode bat eskuratzeko eta mota honetako eratzunak erosi ahal izateko eman beharreko urratsez galdetuko nioke.

5. Eratzunle Espezifiko moduan altan emateko eman beharreko pausoak zeintzuk diren azaldu.

Arrazoitutako erantzuna:

Eratzunle Espezifikoek betebeharrak hauek dituzte:

- *Eratzunle Espezifiko moduan alta emateko eskaera formala egin.*
- *Proiektua bidaltzea.*
- *Eratzunle Aritu baten bermea bidaltzea.*
- *Aranzadiko kide moduan alta ematea.*
- *Eratzuntze Bulegoko Araudia beteko duela dioen idazki bat sinatu eta bidaltzea.*

Eskaera onartzen bada, Eratzunle Espezifikoak baimena eskaerei zein eratzunketa eta soberako materialaren datuen bidalketari dagozkion epeak eta betebeharrak konplitu beharko ditu.